



ORDAINKETA ZATIKATUA ARABAKO ARAUDIAREN PEAN DAUDEN ENTITATEENTZAT

Araudia: 37/2013 Foru Arauaren 130. bis artikulua.

Kooperatibek ordainketa zatikatua egingo dute 16/1997 Foru Arauaren 23. bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zergadunak: enpresa ertainak eta handiak. Foru arau honetako 13. artikuluan araututakoaren arabera enpresa txiki edo mikroenpresatzat hartzen diren entitateek ez dute ordainketa zatikatua aurkeztu beharko, ez eta zerga foru arau horretako 56. artikuluko 4. eta 5. ataletan ezarritako karga tasetan (%1ean eta % 0an, hurrenez hurren) ordaintzen duten entitateek ere.

Epea: urriaren 1etik 25era.

Zenbatekoa: (Zerga oinarria * % 5) - atxikipenak eta konturako sarrerak.

- Zerga oinarria: aitortzen egiteko epea urriaren 1ean igarota daukan azken zergaldikoa. Epemugara heldutako azken zergaldikoa urtebete baino laburragoa izanez gero, zerga oinarria 12 hilabeteko epealdia osatzeraino gehituko da. Aitorpenik ez bada aurkeztu, horretara behartuta egonez gero, aurkeztutako azken aitortzeneko zerga oinarria edo, hala dagokinean, egindako azken likidaziokoa hartuko da erreferentziazat.
- Atxikipenak eta konturako diru sarrerak: zergadunaren diru sarreren kontura egindako sarrerak eta atxikipenak kenduko zaizkio, delako zergaldiari dagozkionak.

Ordainketa zatikatua lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan egin behar duten entitateek, zergaren azken likidazio-aitortzen zehaztutako proportzioa aplikatuko dute. Hala ere, beste proportzio bat aplikatu ahal izango dute 37/2013 Foru Arauaren 130.6 artikuluan jasotzen diren kasuetan.



Ereduak: 203 eta 223

203 eredu (banakako araubidean) eta 223 eredu (zerga baterakuntzako araubidean), "Zerga ereduak" izeneko laguntza programaren bidez bete beharko ditu zergadunak.

Aurkezpena: telematikoa

203 eta 223 ereduak, nahitaez, telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoaren bidez.

Aurkezteko prozedura:

- www.araba.eus - Egoitza Elektronikorako sarrera - Banakako aitortzen aurkezpena - Izapidetu online - Ziurtagiri digitalaren bidez identifikatzea - Sortu eta bidali - Aitortzen sortu eta bidali - Eredua bidali.
- Aitortzen egiteko erabilgaitako "Zerga ereduak" laguntza programaren bidez bidali ahal izango dituzte fitxategiak. Arabako araudiaren peko zerga erakunde eta taldeek.

Laguntza zerbitzua:

203 eta 223 ereduaren aurkezpen telematikoz zalantzarik baduzu, dei egin dezakezu Egoitza Elektronikoko Laguntza Zerbitzura:

- Asteleheneretik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 902 100 513
- Posta elektronikoa: diputaciondigital@araba.eus

Zerga arloko edozein zalantzatarako, gure Zerga Argibideetarako Zerbitzuekin harremanetan jar zaitezke:

- Asteleheneretik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 18 15 55
- Posta elektronikoa: consultasfiscales@araba.eus